

FABRIKA ARTEAN

Juan Ramón Makuso

Ez dakit nola izan den. Baina ez dut eza-gutzen. Joan nintzenean bat zen, eta orain, ez dakit baden. Niretzat, fabrikek ematen zioten bere izana nire kale arteko joan-etorriari. Eta fabriken leihoen beste aldetik, gizonen eta hainbat emakumeen mahoizko jantzi urdinek, margo berezi bat osatzen zuten. Eta zer esanik ez fabriken tutuen oihartzunak!

Zergatik joaten zara iraganeko irudien barnera?

Badakit zer den hau, eta zuk ez didazu etengabe betiko matrakarekin nire burua mailukatu behar. Ez dakizu Zumardiaren bueltak, nire kontzientziaren atzeratze bat, etengabekoa gainera, ekartzen didala?

Uztaileko itzulera honetan, posta elektrokaroaren karpetan jasotakoa ireki dut, eta bion arteko gutunak irakurtzeari ekin diot. Eta hauxe da bion arteko lotura. Zuk esaten zenidan nahiz eta bietatik bat falta ez genduela sumatuko, baina hori ez da egia. Ez dakit, baina oraingo ez.

Oraingo kaleak, etxeak, oraingoak dira eta honek ez du bueltarik. Gainera horrela izan behar du.

Hori horrela da, baina nostalgia gurutzatzen da nire burmuineko zirrikituetatik.

Eta beharbada une honetan nostalgia etendura bat sortu dit nire oroitzapenetan. Baina oroitzeak ez dit ekartzen bihozminik. Alderantziz, gustukoa dut. Nahiz eta pentsatzen dudana oroimena ez dela gizakiok uste duguna, alegia, oroimena gorde egin behar dela. Oroimena iragana da, eta joaten dena joan da, ibaiko ura lez.

Kontrajarriak diren ideiak korapilatzen ari zaizkit, eta hori da hain zuzen, ez nukeena nahi. Zure gutunak azken finean oroitzea da.

Etortzen zaren guztietan atzera buelta bat suposatzen du, baina era baikor batean hartu behar duzu. Ez da horrela Patxikun sortzen zen giroa? Edo San Juan sutarako, bertan, eraikitzen genuen sutzarra? Azken finean une horiek bere horretan zuten bere esanahia.

Errenteriako Udal Artxibategia



tetik ihes egiten du. Baina hau guztia hausnartzen ari naiz, pantailaren aurrean irakurtzen dudana-gatik, zure presentzia edo lotura hona ekartzen dudanean.

Eskola joaterakoan, beti ibilbide berbera egiten genuen, eta ibilbide horretan *Paisako* langileak agurtzen genituen, bide batez zure osabak ia ikusten gintuen, eta horrela pesetaren bat irabazten genuen, arratsalde, *Marian*, futbolinean xahutzeko.

Hautzaroa eta fabrikak gure hezurdu-ra ziren. Horregatik harro ginen, gure herriari Manchester txikia deitzen zioten!, nahiz eta guk hori oso ongi ez ulertu. Baina haurraren mundu txiki horretatik, gauza handia zen.

Eta berriro niretzat atsekabea, gustukoa bainuen kale arteko fabrikak. Baina ez dut errepikatu nahi nire buruan ideia berbera, nahiz eta mailu bat suposatu niretzat. Agian, argazki hori ezabatu behar dut. Edo beste bat atera. Argazkia errealitatearen kopia da. Eta uzten baldin badiot klik! egiteari ez dut izango alburarik.

Liburutegi zaharrean, Patxik ematen zigun Tintinen abenturen liburuxka, eta zuk beti erantzuten zenion gauza berbera: nik Tintin izan nahi dut. Berak isiltzeko, liburutegian irakurri egin behar zela.

Zuk aipatzen dizkidazun kontuak, ez ote dira gaurko begiradarentzako eternitate? Horrela bada eternitate hori, bere horretan gelditu dadila.

Eta hori horrela izanik ez dut atzera egiterik. Dena den, atzera egin, zertarako? Jada berrogeita bost urte ditut.

Oiartzun bat sentitu dut. Bizitzaren deia. Nik hemen jarraitzen dut, eta jario hau ez dut sentitzen orain eta hemen. Behar bada igaro, igarotzen da denbora, baina igarotzerakoan eskuar-



Gizakiok iraungitze data daukagu, nahiz eta gure egunerokoan ez dugun onartzen. Fabrikek gure kaleetan hori nozitu dute, fabrikek ere ez zuten hori pentsatzen, erraldoi handi batzuk ziren, eta bere baitan garaiezinak ziren. Maila horretan, gizakiak bere ahalmena ukatzerakoan –pentsamendua– fabriken pare jartzen da. Eta hau bai paradoxa, edo nire haurtzaroaren paradoxa: fabrikak eta ni, bat ginen.

Beharbada ez nizuke nire errealitatea gorde behar. Edo hobeto esanda, bion errealitatea, biok baitakigu lerro hauek azkenak direla, edo behintzat horrela izan daitekeela. Baina hau bai idatzi behar dizudala. Zuretzat historia hauek

badute esanahia, niretzat jada ez. Ia ia, ezdeusetik idazten dizut, nahiz eta hurrengoan idatzi hauek oroimena baino ez diren izango.

Agian baduzu gogo hori, bat egiten ari zelako gizakiak beti besarkatua daraman zamarekin. Poza dut. Behintzat, orain, gure haurtzarotik hasita honaino iritsi garelako.

Ezin diot jarraitu pantailan agertzen ari denari. Kalera irten naiz. Esmalteriako plazan aurkitzen naiz. Aldamenean etxeak, eserlekuak, eta haurrak jolasten. Nire begiek lurrina daukate, Zumardian biok jolasten genuenean bezala, zerua lurrindua egoten zen Papeleraren ke artean.



(Argazkia: Errenteriako Udal Artxibategia)

